

Arrasateko Euskalan (AED) Taldearen historia eta balorazioa

Joxe Etxeberria eta Juan Luis Arexola-leiba

Entzutetsua egiten ari da Euskal Herrian AED elkartea. Arrasaten euskara eta euskal kultura normalizatzea helburutzat duen Elkarte honek bideratutako hainbat ekimen - Arrasate Press aldizkaria, literatur lehiaketak,... - lortu duten arrakasta dela eta, aski ezagunak badira ere, ez da hainbeste ezaguna AEDk kultur arloarekin batera bideratzen duen sentsibilizazio lana; hau da, euskararen erabilerarako "akuilu" lana. Sentsibilizazio arlo honetan kokatzen dugu zenbaki honen artikulua batetan aztertzen den Euskalan (AED) taldea. Lan-munduan euskara sustatzeko esperientzia apal baten historia, dinamika eta gogoetak gertutik ezagutzeko aukera eman nahi dizugu artikuluan.

The AED association whose main goal is to normalize the Basque language and culture is getting more and more known in the Basque Country. It has carried out several activities - 'Arrasate Press' magazine, literature contests,... - which have turned out to be very successful. Nevertheless, this association is still missing a r ecognition for the work it does to spur people to use the Basque language. It is in this area where the article 'Euskalan (AED) taldea' focuses. Here you can read about the process of how to stimulate the use of the Basque language at the work site, together with some opinions and a brief history of this experience.

«Euskalanan
zeregina sentsibiliza-
zio arloan kokatzen
dugu»

Enpresa mundua eta euskara gaia landuko duen BAT soziolinguistika aldizkarirako Arrasateko Euskalan (AED) taldearen esperientziaz artikulu bat idaztea eskatu digute EKBtik. Emandako hitzari erantzun nahian, lerro hauen bidez Euskalanan helburuen, ardatz, dinamika eta egoeraren berri ematen saiatuko gara.

Artikulu honen oinarria "Arrasate: lan mundua eta euskara" izenburupean 1993ko martxoan Euskalanez eginiko hausnarketa izango da. Aztertuko ditugun puntuak honako hauek izango dira:

1.- Arrasate euskalduntzeko ahaleginean Euskalanan kokapena.

2.- Euskalanan *historia*.

3.- Euskalanan gaur egungo *ardatzak* eta *dinamika*.

1.- Arrasate euskalduntzeko ahaleginean Euskalanan kokapena

Azken urteotan euskarak Arrasaten zenbait arlotan aurrerapausu nabariak eman ditu. Begibistakoa da, batez ere irakaskuntza eta komunikabide arloetan, azken urteotan emandako aurrerakada. Beste entitate batzuekin batera, AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) kultur elkarteak ahalegin horretan parte hartu du modu zuzenean.

AEDren helburua Arrasaten euskararen eta euskal kulturaren normalizatzea da. Helburu hori lortzeko bi arlo jorratu eta uztartzen ditu:

-Kultur arloa: AEDk euskaldunei euskaraz bizitzeko aukerak ematen dizkie. Arlo konetan kokatzen ditugu: haurrentzako ekintzak, euskarazko komunikabideak, literatur lehiaketak, hitzaldiak, ... Horrela, euskara eguneroko hizkuntza bihurtzen dugu eta euskaraz ez dakitenak euskara ikas dezaten bultzatu.

-Sentsibilizazio arloa: euskararen normalizaziorako AEDk zerbitzuak eskaintzea edo gauzak *egitea* besterik gabe ez da nahikoa. Euskara denona da eta herritar zein entitate guztiei dagokie euskarari tratamendu egokia ematea. Zentzu honetan AEDk *eragin* egin behar du, Arrasaten euskararen erabilerarako "akuilua" ere izan behar du.

Euskalanan zeregina *sentsibilizazio* arlo honetan kokatzen dugu. Une honetan AEDk sentsibilizazio arlo horretan egiten duena edo eskuartean duena hau da:

- Kanpo harreman taldea: Talde horren helburua Arrasaten euskararen presentzia, idatzizkoa zein ahozkoa, gehitzea da,

«Euskalanan
helburua lan-mun-
duan eta honen
baitan enpresa
munduan, barne
harremanetan zein
enpresen artekoetan
euskararen erabilera
zuzpertztea da»

arrasatearren euskararekiko atxekimendua areagotu. Neurketak (egunkarietako herriko kronikak, publizitatea, hauteskundeak,...), kanpainak, jarraipen lan sistematikoa egiten du urte asko dela hasita.

- "Euskararen Erabilera Areagotzeko *Hitzarmena*". Hitzarmena sinatu duten ia 100 entitate arrasatearrek konpromisu hauek hartu dituzte: elkarren arteko harremanak, ahozkoak zein idatzizkoak, beti euskaraz izatea eta entitate bakoitzeko barne funtzionamenduan euskara ahalik eta gehien erabiltzeko urratsak ematea. AED Hitzarmen honen partaide eta bultzatzailea da.

- Gauza puntualak: euskara eta Ikastolen aldeko jaietara autobusak antolatu, pegatinak eta egutegiak kaleratu,...

- Eta azkenik, artikuluan azaldu nahi dugun Euskalan taldea, sentsibilizazio arlo honetan kokatzen dugu.

Sarrera honen ondoren goazen, bada, Euskalani heltzera.

* Euskalanan *helburua* lan-munduan eta honen baitan enpresa munduan, barne harremanetan zein enpresen artekoetan euskararen erabilera zuzpertztea da.

2.-Euskalanan historia

Enpresa-munduko hainbat pertsonari AEDk eginiko deiari erantzunez, 1986ko urrian eman ziren Euskalan izango zena- ren lehendabiziko urratsak. Dei hau, bereziki, Arrasateko Kooperatibetako jendeari egin zitzaion; izan ere, bertan euskararen aldeko dinamikarik ia ez bazegoen ere, urte batzuk lehenago horretantxe serio aritutako euskaltzale multzoa baitzegoen.

Euskalan 1987ko hasieran eman zen ezagutzera "Euskeraz dakixenak ein deixela" kanpainaren bidez. Kanpaina honen bidez, enpresetako arduradunei, sindikatuei eta langilegoari oro har, euskararekiko jarrera eta praktika positiboa ager zezaten, zenbait eskakizun biltzen zituen proposamena luzatu zitzaion.

Arrasateko kooperatibetan urte batzuk lehenago, 1977-1980 urteen inguruan, martxan jarritako plangintza bertan behera gelditua zegoen eta orduko izpiritua berreskuratu beharra ikusten zen. Euskalanan proposamenarekin adostasuna azaltzen zuten ehundaka sinadura jaso eta aurkeztu ziren baina ez zuen ekintza honek nahi edo pentsatu besteko erantzunik izan. Zuzendaritzak ez zela posible adierazi zuen. Dena den, ezetza mozorrotzeko edo, hainbat langilerentzako euskarazko klaseak antolatu ziren. Euskalanan eskakizunek izan zuten erantzun eskaxaren erru guztia ez diegu "goikoei",

«Enpresa-munduko hainbat pertsonari AEDk eginiko deiari erantzunez, 1986ko urrian eman ziren Euskalan izango zena- ren lehendabiziko urratsak»

«Euskalanan proposamenarekin adostasuna azaltzen zuten ehundaka sinadura jaso eta aurkeztu ziren baina ez zuen ekintza honek nahi edo pentsatu besteko erantzunik izan. Zuzendaritzak ez zela posible adierazi zuen. Dena den, Euskalanan eskakizunek izan zuten erantzun eskaxaren erru guztia ez diegu zuzendaritzakoei leporatuko»

"Urte hauetan Euskalanez bere sormenez bideratutakoaz gain, hainbat kanpainatan hartu du parte, arrakasta dexentez gainera, Korrika ezberdinetan, Bateginik kanpainan, Euskaldunon Egunkaria sortzeko kanpainan, AEDren kanpainak eta iharduera ezberdinak lantegietara zabalduz"

«1991. urtera arte nahiz eta aipatutako guztia egin, (Euskalan taldea beti eratua egon bada ere) bere jarduna ia "ralentian" egon dela da egiten dugun balorazioa»

hau da, zuzendaritzakoei leporatuko. Langilegoaren artean euskarekiko kontzientzia handiagoa izan balitz, eguneroko motibazio eta jarraipen lana egin izan balitz, luzatutako eskakizunak ez ziren beren horretan geldituko.

1991. urtera arte, plangintza osatuago baten faltan, Euskalanez lanean jarraitu zuen, batez ere eragintza-lanetan. Lantegietan zabalduz kartel, orri, etab.etan honelako mezuak zabaldu ziren:

- "Is this basceland? Ez, hau euskalan da! / Dakixenak indaixela / lantegian ere euskaraz".

- "Si no entiendes, no te quedas con la mosca detrás de la oreja. Ikasi euskera!". "Aizu, ez moskeatu. Euskara 'volada' batean ikasten da".

Urte hauetan Euskalanez bere sormenez bideratutakoaz gain, hainbat kanpainatan hartu du parte, arrakasta dexentez gainera, dena esan behar baita. *Korrika* ezberdinetan dirua batuz eta kilometroa eginez; *Bateginik* kanpainan ehundaka sinadura jasoz eta 1.000 pta.ko 500 bono baino gehiago salduz; *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko kanpainan ere milioi erdia ateraz; AEDren kanpainak eta iharduera ezberdinak lantegietara zabalduz,... gizarte mailan bideratutako ahaleginak enpresa munduan txertatzen arituz azken batez.

Kanpaina guzti horiek aurrera eramateak -eta ahalegin berezirik gabe, gainera, halako arrakasta lortzeak-, oso ezberdinak diren bi ondorio ikustarazi zigun: 1.- Euskalan antolatua egotearen garrantzia eta ekimen puntualak enpresamunduan bideratzeko genuen gaitasuna batetik, eta 2.- ekimen puntualak enpresetan bideratzea ez dela Euskalanez ardatza onartuz:

- enpresa bakoitzean euskara bultzatzeko eskaera neurgarri eta zehatzak bideratzea,

-jarraipena egitea eta- erabileraren aldetik urrats praktikoak emateak dituen zailtasunetan erreparatzea.

1991. urtera arte nahiz eta aipatutako guztia egin, (Euskalan taldea beti eratua egon bada ere) bere jarduna ia "ralentian" egon dela da egiten dugun balorazioa. Gauzak honela gertatzeko arrazoi ugari daude aurrerantzean aipatuko ditugunak, baina hona hemen funtsezkoenetariko bat: Euskalanez bere eskaera zehatzak egin zituenean askoz ere eragin handiagoa izango zutela uste genuen, erantzuna biziagoa, hainbat urrats praktiko epe laburrean burutuko genituela. Guzti hau ez zen nahi bezala gauzatu eta jende dexente bidean gelditu zen "erreta" edo zerbait aurreratzeko zailtasunen au-

rrean ilusio handiegirik gabe. Sarritan geure buruari egin diogun galdera honako hau izan da: garaiegi jarri ote genuen langa?

1991ean Euskalani dedikazio handiagoa ematea erabaki zen AEDren baitan. Euskalan taldea indartu egin zen eta iraunkortasun batekin hainbat euskaltzale biltzen jarraitu genuen. Ordura arteko ekintza puntualak, borondate hutsezkoak, gainditu ahal izateko behar-beharrezkotzat jo genuen geure burua jaztea, guk ateratako ondorioak zabaltzea eta, presarik gabe baina egiten genuenaren kontzientzia izanda, plangin-tza integralagoetara jotzea. Hainbat hilabete-tan euskara eta lan-munduaz zegoen materiala aztertu eta gai honen inguruan lanean ari ziren pertsona zein entitateekin, (HPIN, Elhuyar, Siadeco, Antzuolako Elay enpresa,...) harremanak izan genituen.

Eusko Jaurlaritzako HPIN enpresa munduan plan pilotoak bideratzen ari zela eta, izan genuen beraiekin bilera bat edo beste. Bilera hauetan elkarren berri izan genuen eta aurrerantzean ere elkarlanean zerbait bideratzeko aukera bazegoen aztertu. HPINekok, Euskararen Aholku Batzordeak (lan-munduko batzordeak), 1990eko apirilean kaleratutako "Euskararen normalizazioa enpresa-munduan: oinarritzko erizpi-deak" txostena aurkeztu eta azaldu ziguten eta, honekin batera, enpresa-munduan bideratzen ari ziren plan-pilotoen (une hartan Antzuolako Elay enpresan bideratzen ari zena) berri eman ziguten. Enpresa batek plan-pilotoetan sartzeko hainbat baldintza bete behar zituen: euskaldun kopuru handia, plan-tila gazte samarra, eta garrantzitsuena dena: zuzendaritza edo enpresaria eta langilegoa onartu eta "bustitzeko" prest egon behar zuten.

Informazio biltze eta bilera hauetaz Euskalaneke balorazio positiboa egin du zeren eta geure burua jazteko balio izan baitzuten batetik eta, bestetik, plan-pilotoetan sartzeko baldintza egokiak zituzten bi enpresa harremanetan jarri genituelako HPINrekin.

Ordutik aurrera, informazio biltze eta hausnarketa-lan hau izan dugu ipar lekuan lekuko arazo eta beharrei erantzun asmoz.

1992ko irailean, euskaltegi-tako matrikula garaiaz baliatuz, sentsibilizazio eta matrikulazio kanpaina berezi eta indartsua egin zuen Euskalaneke. Erabili zituen lemak hauek izan ziren: "Dale paso al euskara!! ... porque el euskara te necesita! ... y tú también lo necesitas Ahora tienes la oportunidad" eta "Lanean ere euskaraz. Gure ordua da. ...dakienarekin hitz

«Euskalaneke bere eskaera zehatzak egin zituenean askoz ere eragin handiagoa izango zutela uste genuen, erantzuna biziagoa, hainbat urrats praktikoko epe laburrean burutuko genituela. Guzti hau ez zen nahi bezala gauzatu eta jende dexente bidean gelditu zen "erreta" edo zerbait aurreratzeko zailtasunen aurrean ilusio handiegirik gabe»

«1991ean behar-beharrezkotzat jo genuen geure burua jaztea, guk ateratako ondorioak zabaltzea eta, presarik gabe baina egiten genuenaren kontzientzia izanda, plangintza integralagoetara jotzea»

«1992ko irailean, euskaltegietako matrikula garaiaz baliatuz, sentsibilizazio eta matrikulazio kanpaina berezi eta indartsua egin zuen Euskalanek. Kanpaina hau Arrasateko lantegi gehienetan bideratu zen eta ondorio dexente ateratu genuen bertatik»

«Fagor enpresa inguruko garrantzitsuena izanik, hilabete askotan Euskalanan lan-ardatza izan da Euskara Batzordea sortzen laguntzea. Duela zenbait hilabete Fagor Elektratresnetan martxan dago Euskara Batzordea»

eginez! ... zuk zeuk ere, dakizuna landuz! ...ikasten ari denari lagunduz! ...ez dakiena ikastera bultzatuz! Orain duzu aukera!». Kanpaina hau Arrasateko lantegi gehienetan bideratu zen eta ondorio dexente ateratu genuen bertatik. Baina ezusteko bat ere izan genuen, matrikulazio kanpaina hau zela eta "euskararen gaia" ateratu egin zen Fagor Elektratresnak kooperatibako Kontseilu Sozialean (7 plantatan banaturik ia 3.000 langile dituen enpresan) eta, gestio eta bilera ugari egin ondoren, enpresa honetan ofizialtasuna izango zuen Euskara Batzordea martxan jartzea onartu zen bai langilegoaren eta baita Zuzendaritza organoen aldetik.

Aipaturiko enpresa inguruko garrantzitsuena izanik, hilabete askotan Euskalanan lan-ardatza izan da Euskara Batzordea sortzen laguntzea: planta bakoitzean euskara lan-munduko gauza ere badela azaldu, planta bakoitzeko ordezkaria bilatzen lagundu,... Duela zenbait hilabete Fagor Elektratresnetan martxan dago Euskara Batzordea, baina Euskara Batzorde hori abian jartzeko izan genituen gorabeherak eta aurretik genituen hainbat kezka zirela medio, Euskalanan ikuspuntuak, ideiak, ardatzak, etab. modu errazean lan-munduko sektore zabalagoetara zabaldu beharraz ohartu ginen. Enpresa-munduko jendeak oso gutxitan hitz egiten du euskararen inguruan, lantegian euskaraz aritzea eta funtzionatzea ahal dela ez du inolaz ere ikusten,... Informazio, ideia argitze eta motibazio-lan sakona egin behar genuela izan zen ateratako lehentasunezko ondorio bat.

3.- Euskalanan gaur egungo ardatzak eta dinamika

Euskalanekeo partaideok zenbait ideiri forma eta lotura eman ondoren, artikulua hasieran aipaturiko "Arrasate: lan mundua eta euskara" txostena idatzi genuen eta 1993ko martxoaren 11n Arrasateko kultur-etxean 55 pertsona bildurik egin genuen bilera informatibo-eztabaidan azaldu genuen. Datozen lerrootan txosten honen ideia nagusiak azalduko ditugu. Horretan hasi baino lehen, edozelan ere, aipa dezagun, Arrasateko errealitatean oinarriturik gure uztako gauza dexente badago ere, gorago aipaturiko Euskararen Aholku Batzordearen txostenetik gauza asko jaso eta geure egoerara eta ikusmiretara moldatu ditugula.

Bileran lau puntu nagusi aztertu genituen, hauetako bi "Gaiaren kokapena: euskalgintza Arrasaten eta lan-mundua" eta "Fagor elektratresnak-eko euskara batzordea" baina hauen inguruan ez gara arituko artikulua honetan eta biren inguruan, "Euskararen normalizazioa enpresa-munduan: plan pilotoak" eta "Euskalan (AED)ren ideia eta proposamen zehat-

zak”, hain zuzen ere, esandakoaz arituko gara.

- “Euskararen normalizazioa enpresa-munduan: plan pilotoak”:

Plan-pilotoen sintesia edo aipamena egin genuen. Enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko eta gehitzeko, plangintzak egiterakoan aintzakotzak hartu beharreko *seifuntzioen* eta *hiru mailen* berri eta gai honen inguruan kontutan eduki beharreko beste hainbat aholkuren berri (arrazoizko helburuak finkatzea, azken helburua euskararen erabilera eta ez langileen trebakuntza hutsa,...) eman genuen. (Puntu honen inguruan interesa izanez gero, eskura ezazu Euskararen aholku batzordearen aurrez aipaturiko txostena). Plangintza honen inguruan, lan-munduko jendeari begiak ireki asmoz, gure ustez kontutan edukitzeko eta interesgarriak diren hainbat ideia zabaldu genituen:

* Gure herrian euskararen normalizazioa lortzeko *lan-munduen garrantzia*:

- Euskalduntzat jotzen ditugun zonaldeetan ere euskarak betetzen dituen funtzioak aztertu beharra dago. Zonalde euskaldunetan funtzio eta arlo askotan gaztelera da erabil-tzen den hizkuntza. Familia edo lagun-arteko giroan soilik erabiltzen den hizkuntza desagertzea doala argi eta garbi dago.

- Euskararen normalizazioa lortzeko egiten ari garen aha-leginean merkatal eta industria mundua kanpoan gelditzen ari dira. Aipaturiko bi arlo hauetan euskaldunok ere erdaraz bizi gara.

- Lan-munduan euskarak aurrera egin dezan nahitaezkoa da bertako agenteen inplikazioa: zuzendaritza, langileak,...

- Arrasateko gazteei (gaur egun euskaraz ikasten ari direnei), bidea ez bazaie zabaltzen lantegietan hizkuntz politika finkatuz, ez dute lan-mundua euskaldunduko. Alderantziz, lan-munduan euskarari biderik zabaltzen ez badiogu, beste arlo batzuetan egindakoa pikutara bidaltzeko arriskua dago.

- Euskalan(AED)ren ideia eta proposamen zehatzak:

* Lantegietan euskararen aldeko lanari ekin edota jarraitu behar diogu. Eginkizun hau ez dugu egin behar bizimodua konplikatzeko edo zerbaitetan denbora eman behar dugulako edo orain delako egoerarik egokiena. *Bai*, ordea, euskaldunak garelako eta izan nahi dugulako, herri honen eta euskararen etorkizunak kezkatzen gaituelako; azken batean, gure herria euskalduntzeko lan-mundua arlo garrantzitsua delako.

«Plan-pilotoen sintesia edo aipamena egin genuen. Enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko eta gehitzeko, plangintzak egiterakoan aintzakotzak hartu beharreko seifuntzioen eta hiru mailen berri eta gai honen inguruan kontutan eduki beharreko beste hainbat aholkuren berri eman genuen»

«Familia edo lagun-arteko giroan soilik erabiltzen den hizkuntza desagertzea doala argi eta garbi dago. Lan-munduan euskarari biderik zabaltzen ez badiogu, beste arlo batzuetan egindakoa pikutara bidaltzeko arriskua dago»

«Arrasaten kontraesan bat areagotzen ari da. Gaur egun ume guztiek euskaraz ikasten dute eta lan-munduan euskaraz aritzeko ez zaizkie bideak zabal-tzen»

«Lan-munduan euskararen aldeko lanari ekiteko, hauek dira 3 puntu garrantzitsu; helburuak: argiak, neurgarriak eta lorgarriak izan behar dute; antolaketak: egokia, denboraz bitarteko minimoak lortu behar ditugu; dinamika: Kontuz ibili behar dugu, iraunkorki eta luzaroan eramateko dinamika finkatu behar dugu»

* Arrasaten kontraesan bat areagotzen ari da. Gaur egun ume guztiek euskaraz ikasten dute eta lan-munduan euskaraz aritzeko ez zaizkie bideak zabal-tzen. Gaur egun ahal da Arrasaten urte batekin hasi eta hogeitabatekin bukatu ikasketak euskaraz, -Eskola Politeknikoan injinerutza eta proiektua euskaraz edo ia euskaraz egin daitezke, adibidez-, eta gero ikasitakoa erabiltzeko orduan, lantokian, erdara hutsez aritu behar izatea.

* Lan-munduan euskararen aldeko lanari ekiteko, hauek dira 3 puntu garrantzitsu :

- Helburuak: argiak, neurgarriak eta lorgarriak izan behar dute.

- Antolaketa: egokia. Denboraz *bitarteko minimoak* lortu behar ditugu.

- Dinamika: Kontuz ibili behar dugu, iraunkorki eta luzaroan eramateko dinamika finkatu behar dugu.

* AEDk Arrasaten egin duen bidea eta funtzioa, egokituta hori bai, enpresetara eraman behar dugu.

* Ez gara inuxenteak: badakigu lan-munduan ere faktore askok -denak ez esatearren- erdarara bultzatzen dutela. Lantegietan Euskalan euskararen aldeko faktore *eraginkorra* izatea lortu behar dugu, enpresetan euskararen inguruan *interlokutore* izatea.

Baina zehazki, zer? Guzti honekin zertan geratzen gara?

* Egokiena, zalantzarik ez, Antzuolako Elayk egin duena egitea litzateke. Plan-pilotoetan sartu honek dakarrenarekin: 3/4 urteko plangintza, milioi dextenteko aurrekontua, enpresa bakoitzean dinamizatzaileak,...

* Dena den, une honetan, Arrasateko lantegi gehienetan ez dugu ahalgarri ikusten bi arrazoirengatik:

- Egoera ekonomikoa.

- Kontzientziazio/sentsibilizazio maila: gaur egun "denok" edo "gehienok" euskararen alde gaude baina, aldi berean, lasai bizi gara erdaraz. Gaur egun gure enpresetan ez dago eskakizunik -antolatua eta serioa behintzat- gai honen inguruan.

* Gauzak honela egonik *egoera desblokeatu* egin behar dugu. Une honetan lana bi arlotan egin behar dugu:

1.- Euskalan talde iraunkorrak *lantegietan*. Esku artean daukagunak lan kolektiboaren beharra du. Lantegietan *benetakotaldeak* eratzea lortu behar dugu, nahiz eta dinamika

apalarekin hasi.

2.- Euskalan (AED)ren zeregina (dinamikari lotura eta bultzada ematen dion herri mailako talde iraunkorra) eta ahalmena handitzea. Hauek lirateke talde honen zereginak:

- Zein den bidea *argitu*: bideak, estrategiak, lehentasunak, arazoei nola egin aurre. Hitz batez, Euskalan talde ezberdinen *aholkulari* lana betetzea.

- Koordinazioa: Ahalegin ezberdinei batasun bat emateko eta beste arlo batzuetan egiten den lanarekin harremanetan egonez, ikuspegi globala eduki ahal izateko.

- Lan bateratuak eta *sentsibilizazio* kanpainak aurrera eramatea: matrikulazio kanpaina, errotulazioak,...

Euskalan (AED)k funtzio hau modu egokian betetzeko hobeto prestatu beharra du eta lantegi ezberdinetako Euskalan taldeen "aurretik" ibili behar du.

Puntu honekin bukatzeko gauza pare bat argi eta garbi azaldu ziren:

* Gauza bat argi eduki behar dugu, lantegi bakoitzeko Euskalan taldearen lanak eta Euskalan (AED)renak guztiz *osagarriak* izan behar dute:

-Dinamika enpresetan egon edo sortu behar da, bertakoek ezagutzen dute eta tokian tokiko egoera, jendea,... *ez da inor joango kanpotik "asmakizun liluragarriekin"*.

-Euskalan (AED)k, berriz, lantegietan talderik izan gabe *ezin du ezer egin*. Lantegietako Euskalan taldeek, gaur egun, laguntza behar dute, funtzio hori betetzeko prest dago Euskalan (AED).

* Orain, "dirurik" gabe, gauza dexente egin daiteke. Has gaitzen edo jarrai dezagun gauzak abian jartzen. Aurrerantzean, beharrak ikusten direnean, izango da unea bitartekoak eskatu eta lortu ahal izateko.

* Euskara bultzatzeko prozesua *euskaldunon lideratu eta bideratu* behar dugu. Erdaraz funtzionatzen duten estruktura eta pertsonak ezin dira izan prozesu honen aitzindari. Baina, aldi berean, denon laguntza eta parte hartzea lortzen saiatu behar dugu.

Agian luze samarra gertatu bada ere, jakingarria iruditu zaigu Arrasatetik kanpo hausnarketa hauen berri ematea. Zehatz samar aipatu dugun txostena eta bilera positibotzat jo genituen, jende askori zer pentsatu eman geniolarakoan. Dena den, lan-munduko ajenteen artean guretzat argi dauden ideia

«Egokiena, zalan-tzarik ez, Antzuolako Elayk egin duena egitea litzateke. Plan-pilotoetan sartu honek dakarrenarekin: 3/4 urteko plangintza, milioi dexenteko aurrekontua, enpresa bakoitzean dinamizatzailleak»

«Une honetan lana bi arlotan egin behar dugu: 1.- Euskalan talde iraunkorrak lantegietan. Lantegietan benetako taldeak eratzea lortu behar dugu, nahiz eta dinamika apalarekin hasi. 2.-Euskalan (AED)-ren zeregina eta ahalmena handitzea»

*«Lantegi bakoitze-
ko Euskalan taldea-
ren lanak eta Euska-
lan (AED)renak
guztiz osagarriak
izan behar dute»*

*«Azkenengo
hilabete hauetan
ideia guzti hauetan
sakondu egin dugu
eta Euskalane-
k bideratutako bi
ekimenik praktikoe-
nak sindikatuen
(ELA, LAB, CCOO eta
ESK) parte hartzeaz
gauzatu dira»*

hauek txertatzen eta zabaltzen, ahalegin ugari egin beharko dugu.

Azkenengo hilabete hauetan ideia guzti hauetan sakondu egin dugu eta Euskalane-
k bideratutako bi ekimenik praktikoe-
nak sindikatuen (ELA, LAB, CCOO eta ESK) parte hartzeaz gauzatu dira:

- Korrika-8 zela eta, kilometroa egin eta kanpaina txiki bat burutu genuen 4 sindikatuokin.

- Uztaila eta iraila osoan aurten ere matrikulazio kanpaina bideratu dugu, eta euskarazko klaseak lantegietan bertan kendu, emateko ahaleginak egiten ari gara une honetan. Ez da gauza liluragarririk lortu, baina laster hasiko dira talde bat baino gehiago.

Artikulu hau idazten ari garen unean, AEDren X. urteurrena ospatzeko asmoz hainbat ekitaldi antolatzen ari gara “AED elkarte 10 urte, egunez egun, Arrasate euskalduntzen” lemapean. Elkarte ezaguna egin da AED ez Arrasaten soilik. Hamar urte hauetan egindakoaz pozik gaude, urratsak eman eta aurreratu egin dugula kontziente gara, baina artikuluan argi geldituko zen moduan, badugu zereginik beste 10 urte eta gehiagorako.

Euskal Herrian zehar jende askok euskararen inguruan “Arrasateko fenomeno” erdi idealizatuta du. Egindakoa garrantzitsua izanik, eguneroko lanaz lortu dugu, ez dago misteriorik. Gainerako herrietan ere egin daiteke, azken 4-5 urteotan sortu diren Euskara Elkarte horiek lekuko. Lan-munduan ere, Euskalane-
k ez du esperientzia bitxi bat izaten jarraitu behar, ea 10 urte barru, une honetan Herrietako Euskara Elkarteak errealitate indartsua diren moduan, lan-munduan ere gauzak aldatzen hasiak diren eta gizartearen motore garrantzitsuenetarikoak direnek, euskaraz bizitzeko bideak ireki ditzaten urratsak ematen ditugun. Gure esku ere badago!

Joxe Etxeberria eta

Juan Luis Arexola-leiba

Euskalan eta Arrasate Euskaldun Dezagun-eko kideak

Members of Euskalan and AED